

# 2012ko Kontratazio Memoria

KONTUHARTZAIETZA  
ETA AUDITORETZA  
2013ko ABUZTUA



## AURKIBIDEA

	Or.
1 SARRERA .....	3
2 KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOARI BURUZKO ARAUDIA .....	4
3 KONTRATUEN ERREGISTRO ESPARRUA .....	7
4 2012KO EKITALDIKO KONTRATUEN AZTERKETA.....	8
4.1. 2012KO EKITALDIAN ONARTUTAKO KONTRATUAK .....	9
4.1.1. TIPOLOGIAREN ARABERA .....	9
4.1.2. ESLEITZEKO PROZEDURAREN ETA ERAREN ARABERA .....	20
4.1.3. ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOAREN ARABERA .....	24
4.1.4. ESLEITU GABE UTZITAKO LIZITAZIOAK .....	25
4.2. 2012KO EKITALDIAN ESLEITUTAKO KONTRATUAK .....	26
4.2.1. ESLEIPENETAN IZANDAKO KONTRATAZIO BEHERAPENEN AZTERKETA .....	27
4.2.2. LIZITATZAILEEN AZTERKETA .....	28
4.2.3. ESKAINTZARIK MERKEENAREN ALDEKO ESLEIPENAK .....	33
4.2.4. ESLEITZEKO IRIZPIDEEN AZTERKETA .....	34
 ERANSKINAK	
I. ERANSKINA      2012n onartutako kontratuak, kontratu motaren arabera .....	20
II. ERANSKINA     2012n onartutako kontratuak, esleitzeko prozeduraren arabera .....	51
III. ERANSKINA    2012n onartutako kontratuak, esleitzeko eraren arabera .....	52
IV. ERANSKINA    2012n onartutako kontratuak, espedientearen tramitearen arabera .....	53
V. ERANSKINA     2012ko esleipenetan izandako beherapenen zerrenda, departamentuen arabera .....	54
VI. ERANSKINA    2012ko esleipenetan izandako beherapenen zerrenda, kontratu motaren arabera .....	74
VII. ERANSKINA   2012ko esleipenak, departamentuaren, kontratu motaren eta lizitatzailleen arabera .....	92
III. ERANSKINA    2012ko esleipenak, lizitatzailleen arabera .....	108



## 1 SARRERA

Maiatzaren 22ko 25/2012 Foru Dekretuak, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duenak, Foru Aldundiak eta foru organismo autonomoek egindako kontratuak erregistratzeko eginkizuna esleitzen dio Kontuhartzailatza eta Auditoretza Zerbitzuari. Orobat, eskatzen zaizkion eta bere eskumenekoak diren azterketa eta txostenak egitea ere agintzen zaio zerbitzuari dekretu horretan.

Hori guztia betez, Memoria hau aurkezten da Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratazio administratiboaren alorrean egindako kudeaketaren ikuspegi integral bat eskaintzeko.

Memoria bi ataletan egituratuta dago:

1. Kontratazio alorrean Foru Aldundiari aplikagarri zaion araudiaren aipamen laburra.
2. Foru Aldundiko 2012ko kontratuen kudeaketari buruz Zerbitzu honetan dauden datuen azterketa. Ekitaldian lizitatu eta esleitutako kontratuen inguruko datu eta estatistikak ere jasotzen dira, eta konparazioak egiten dira 2011. urtearekiko.



## 2 KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOARI BURUZKO ARAUDIA

### ◆ Kontratazio administratiboaren alorrean aplikagarria den legeria

2012ko ekitaldian honako legeria aplikatu zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari kontratazio administratiboaren alorrean:

1.- Hasteko, Estatuko Oinarrizko Legeria da aplikatzekoa (Konstituzioaren 149.1.18 artikulua). Oinarrizko legeria dira:

- ⇒ 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia Jasangarriari buruzkoa.
- ⇒ 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.
- ⇒ 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
- ⇒ 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

2.- Aurreko legeriarekin batera, garapeneko legeria autonomikoa ere aplikatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 11. artikulua Estatuko oinarrizko legeria bere lurraldearen barruan garatu eta exekutatzeko eskumenak esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari, kontratazioari dagokionez.

Gaiari buruzko araudi autonomikoa, nagusiki, honako xedapenen bidez gauzatu da:

- ⇒ 136/1996 Dekretua, ekainaren 5koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio erregimenari buruzkoa.
- ⇒ 12/1998 Dekretua, otsailaren 3koa, Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenaren ezarpenari buruzkoa.
- ⇒ Agindua, 1998ko otsailaren 4koa, Ogasun eta Herri Administrazio Kontseilariarena, Kontratisten Erregistro ofizialaren funtzionamendu arauak ezartzekoa.
- ⇒ Agindua, 1998ko otsailaren 4koa, Ogasun eta Herri Administrazio Kontseilariarena, Kontratazio Administratiboaren Aholku Batzordearen funtzionamendu arauak ezartzekoa.

3.- Garapeneko legeria autonomikorik ezean, honako hauek dira aplikaziozkoak: Herri Administrazioen Kontratuen Legea (testu bategina), Sektore Publikoko Kontratuen Legea, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, 1098/2001 Errege Dekretua, 817/2009 Errege Dekretua, eta kontratazioari dagokionez Estatuak ematen dituen eta oinarrizko legeria osatzen ez duten gainontzeko xedapenak.



4.- Azkenik, ordezeko izaeraz, zuzenbide pribatua ere da aplikagarria.

### ◆ Kontratazio administratiboari aplika dakioken foru araudia

Lurralde historikoak ez du eskumenik kontratazio administratiboaren alorrean, salbu eta bere Administrazioako organoen eskumenei dagozkien, eta, beraz, Autonomia Estatutuak 37. artikuluan aitortuta duen auto-antolaketa eskumenaren barruan sartzen diren gaitan. Atal honetan xedapen hauek aipatu behar dira:

- ⇒ Martxoaren 26ko 3/2002 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2002. urterako Aurrekontu Orokorrek onartzen dituenak, kontratazio eta erosketa zentralizatuko kredituei dagokionez hirugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa. Bertan jasotzen denez, kudeaketa zentralizatuko kredituetan, kontratuak tramitatzea eta obligazioak baimendu, konprometitu eta onartzea, proposamenak organo eskudunari helarazita kredituen zenbatekoaren arabera, kudeaketa zentralizatua agindua duten departamentuei dagokie, Diputatuen Kontseiluak ezartzen dituen prozedurei jarraiki.
- ⇒ 6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa.
- ⇒ Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen egitura organiko eta funtzionala onartzen duten foru dekretuak.
- ⇒ 24/2001 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundi Gorenaren Kontratuen Erregistroa sortu eta kontratistak kreditatzeko prozedura arautzekoa.
- ⇒ 24/2010 Foru Dekretua, irailaren 28koa, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administrazioa sortu eta arautzen duena.
- ⇒ 3/2011 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentrala eta Zerbitzu Orokorren Kontratazio Mahaia arautzekoa.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 1998ko otsailaren 24koa, Zerbitzu Orokorren Kontratazio eta Homologazio Mahaian hainbat ondasun eskuratze eta hornitze zentralizatukotzat jotzen dituen eta haien kudeaketa 1998ko ekitaldirako eta hurrengoetarako arautzen duena.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2001eko apirilaren 24koa, kontratazio administratiboaren alorrean Foru Aldundiko lan eta zerbitzuetan edo berak sustatutakoetan segurtasun eta osasun gaiari buruz bete beharreko arauak onartzen dituen (GAO. 2001-05-29).
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2001eko ekainaren 12koa, II. kapituluko hainbat partida kudeaketa zentralizatukotzat jotzen dituen.



- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2004ko otsailaren 3koa, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako kontratuen luzapenetan erabili beharreko adierazle ofiziala ezartzen duena.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2005eko apirilaren 26koa, hainbat aurrekontu-kontzeptu kudeaketa zentralizatukotzat jotzen dituen (2005eko ekainaren 7ko Erabakiak zuzendua).
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2009ko uztailaren 7koa, Aldundiko langileen 2009-2011ko lan baldintzak arautzen dituen 17. apartatuan, langileen subrogazioa baldintza administratibo berezien agirietan sartzea onartu zen.
- ⇒ 3/2011 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentrala eta Zerbitzu Orokorren Kontratazio Mahaia arautzekoa.
- ⇒ Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2011ko ekainaren 21ekoa, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko klausulak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esparruko kontratuetan eta diru laguntzetan sartzea onartzen duena.



### **3 KONTRATUEN ERREGISTRO ESPARRUA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta "Uliazpi Fundazioa" organismo autonomoak egiten dituzten administrazio kontratu guztiak erregistratu behar dira, betiere indarrean dagoen legerian kontratu txikitzat hartzen ez badira.

Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez tramitatutako kontratuak ez dira jasotzen erregistroan, haien lizitazio aurrekontuak azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzekoak, kontratu txikietarako finkatutako kopuruak gainditzen ez dituenean.



#### 4 2012KO EKITALDIKO KONTRATUEN AZTERKETA

Memoria honetan jasotzen diren kontratuak hautatzeko honako irizpideak jarraitu dira:

- ❑ 2012. urtean onartutako kontratuen datuak kontratazio espedientea urte horretan baimendua duten prozesuei dagozkie.
- ❑ 2012. urtean egindako esleipenen datuak ekitaldi horretan aurrera eramán diren esleipenei buruzkoak dira, alde batera utzita kontratua aurreko ekitaldietan onartu den edo ez.
- ❑ Esleipen horiei buruzko datuak kontratu bat osatu dezaketen loteetako bakoitzari dagozkio. Horren arrazoia da zenbait kontratutan xedea lotetan banatuta dagoela. Lote bakoitzak esleipen eta exekuzio autonomia izan dezakeen neurrian, kontratuaren gainerako loteen aldean, zerrendak eta estatistikak prestatzerakoan lote kontzeptuarekin egin behar da lana, eta ez, ordea, kontratu kontzeptuarekin. Horrexegatik, 2012. urtean esleitutako lote kopuru osoa kontratu guztiena baino handiagoa da.
- ❑ Beren zenbatekoagatik publizitaterik gabeko prozedura negoziatueterako finkatutako gehieneko mugen barruan sartzen diren kontratuak prozedura horretan tramitatutzat hartu dira.

2012ko ekitaldian 139 kontratazio espediente onartu dira, 131.694.447,18 euro guztira. Ondorengo ataletan espediente horien banaketa aztertzen dugu hainbat irizpideren arabera.<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> Ikus laburpen taulak Memoriaren I. eranskinean. Bertan 2012an onartutako kontratuak ageri dira, departamentuen eta kontratu moten arabera.sailkatuak





#### 4.1. 2012KO EKITALDIAN ONARTUTAKO KONTRATUAK

##### 4.1.1. TIPOLOGIAREN ARABERA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginean araututa dauden kontratu mota desberdinak kontuan hartuta, 2012. urtean onartutako kontratuek ondorengo taulan zehaztutako banaketa ageri dute. Datuak 2011. urtearekin alderatu dira.

KONTRATU MOTA	Kopurua		ZENBATEKOA		
	2011	2012	2011	2012	% 2012/2011
Obrak	36	12	56.151.081,92	85.405.966,28	%52,10
Hornidurak	22	20	3.228.448,95	3.980.770,33	%23,30
Zerbitzuak	91	88	20.408.005,58	25.266.052,25	%23,80
Zerbit. kudeaketa.	1	6	78.832.307,20	13.848.573,13	-%82,43
Bereziak	4	1	163.788,60	137.000,00	-%16,36
Pribatuak	11	12	2.698.445,00	3.056.085,19	%13,25
Esparru akordioa	1		42.000,00		
<b>GUZTIRA</b>	<b>166</b>	<b>139</b>	<b>161.524.077,25</b>	<b>131.694.447,18</b>	<b>-%18,47</b>

Aurkeztutako datuak 2011ko datuekin konparatuta, ikusten da Gipuzkoako Foru Aldundiak egin dituen kontratuen kopurua eta haien zenbatekoa bigarren urtez jaitsi direla segidan, nahiz eta jaitsiera hori samurragoa izan den 2011. eta 2010. urteak konparatzean ageri denaren aldean. 166tik 139ra jaitsi da kontratazio kopurua. Bestalde, lizitatutako aurrekontuak %18,47 egin du behera 2011ko zenbateko osoaren aldean [30 milioi euro inguru].

Horrela, kopurua jaitsi da hornidura kontratuetan, zerbitzu kontratuetan, obra kontratuetan eta kontratu berezietan. Bestalde, zerbitzu kontratuak eta kontratu pribatuak zertxobait igo dira. Azkenik, ez da esparru akordiorik erregistratu, 2011. urtean ez bezala, bat erregistratu baitzen orduan.


Erabilitako kontratu motak kopuruari dagokionez, obra kontratuetan aurkitzen dugu jaitsierarik nabarmenena [36tik 12ra igaro dira]. Hala ere, kopuruan jaitsi arren, zenbatekoan asko igo dira kontratu horiek: 56 milioi eurotik 2011n 85 milioi euro baino gehiagora pasatu da zenbatekoa 2012an.

Kontratu mota bakoitzaren lizitazio zenbatekoari erreparatuz gero, zerbitzuak kudeatzeko kontratuetan nabarmen jaitsi dira zenbatekoak, 65 milioi euro inguru (%82,43).



Ikuspegi ekonomikotik, obra kontratuak dira nagusiak, 2012an lizitatutako aurrekontuaren %64,85 hartzen dutelako. Ondoren, zerbitzu kontratuak datoz zenbateko osoaren %19,19ko portzentajearekin. Bestalde, zerbitzuak kudeatzeko kontratuetan lizitatutako zenbatekoak hirugarren tokia hartzen du, zenbateko osoaren %10,52.

Hiru kontratu mota horietan lizitatutako zenbatekoak batuta, Aldundiak 2012an lizitatutako zenbateko osoaren %95 dira ia. Gainerako zenbatekoa honela banatzen da: hornidura kontratuak [%3,02], pribatuak [%2,32], eta kontratu berezi bakarra [%0,10].



Departamentuek onartu dituzten kontratuen kopuruari dagokionez, agerian jartzen da Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak besteek baino kontratu gehiago tramitatu dituela (%20,86). Haren atzetik, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua dator %16,55ekin. Bi departamentu kenduta –Ogasun eta Finantza [%1,44] eta Foru Administrazio eta Funtzio Publikoa [%2,16], gainerakoak 10 eta 14 puntu portzentualen artean mugitzen dira.


Gastu baimenduari dagokionez, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua nabarmentzen da, bere gastu bolumenak 2012ko gastu osoaren %74,28 hartzen baitu. Atzetik Gizarte Politikako Departamentua dago, %15,40ko portzentajearekin. Gainerako departamentuei dagokienez, haietako bat ere ez dago %3,75ren gainetik, eta bi departamentu dira bereziki aipatzekoak: Ogasun eta Finantza (%0,05) eta Foru Administrazio eta Funtzio Publikoa (%0,27).



**2012AN ONARTUTAKO KONTRATUEN BANAKETA, DEPARTAMENTUKA**


	KOP.	%/GUZTIA	ZENBATEKOA	%/GUZTIA
Diputatu Nagusia	15	%10,79	1.900.452,00	%1,44
Ogasuna eta Finantzak	2	%1,44	64.928,00	%0,05
Gizarte Politika	14	%10,07	20.280.638,43	%15,40
Kultura, Gazteria eta Kirola	29	%20,86	2.520.638,45	%1,91
Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa/	3	%2,16	356.790,00	%0,27
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa	23	%16,55	2.522.845,81	%1,92
Ingurumena eta Lurralde Antolaketa	19	%13,67	1.299.730,61	%0,99
Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak	18	%12,95	97.822.535,35	%74,28
Z. Orokorrak: Kudeaketa Zentralizatua eta Kontr.-Zentrala	16	%11,51	4.925.888,53	%3,74
<b>GUZTIRA</b>	<b>139</b>	<b>%100,00</b>	<b>131.694.447,18</b>	<b>%100,00</b>

**ONARTURTAKO KONTRATU KOPURUAREN BANAKETA**





### BAIMENDUTAKO GASTUAREN BANAKETA



Jarraian, departamentuz departamentu xehatuko dugu informazio hori.

#### Diputatu Nagusia

2012ko ekitaldian 15 kontratazio espediente onartu dira (1.900.452,00 euro guztira), hau da, ekitaldian hasitako kontratuetarako Foru Aldundiak baimendutako gastu bolumen osoaren %1,44.

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa	
	2011	2012	2011	2012
Zerbitzuak	7	13	1.355.958,00	839.952,00
Pribatuak	0	2	0	1.060.500,00
	<b>7</b>	<b>15</b>	<b>1.355.958,00</b>	<b>1.900.452,00</b>

Departamentu honek bi kontratu mota erabili ditu 2012ko ekitaldian, zerbitzuen kontratua eta kontratu pribatua. Zenbatekorik handienekoa, Real Sociedad futbol taldearen 2011-2012 denboraldiaren babesletza kontratu pribatua da → 1.000.000 euro.



## Ogasuna eta Finantzak

2012ko ekitaldian 2 kontratazio espediente onartu dira (64.928 euro guztira), ekitaldian hasitako kontratueterako Foru Aldundiak baimendutako gastu bolumen osoaren %0,05.

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa	
	2011	2012	2011	2012
Zerbitzuak	8	2	961.701,13	64.928,00

Diputatu nagusiaren kasuan bezala, Ogasun eta Finantza Departamentuak ere kontratu kategoría bakarra erabiliko du, zerbitzu kontratuena. Haien artean, eta zenbateko handia duelako, Foru Aldundiaren rating-aren kontratazioa nabarmentzen da 2012an → 34.928,00 euro.

## Gizarte Politika

Departamentu honek 14 kontratu egin ditu 2012ko ekitaldian, eta 20.280.638,43 euroko aurrekontua lizitatu da guztira. Ekitaldian hasitako kontratueterako Foru Aldundiak baimendutako gastu osoaren %15,40 da gastu hori.

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa	
	2011	2012	2011	2012
Obrak	8	2	2.038.213,93	3.235.752,64
Zerbitzuak	6	8	7.622.780,16	3.930.378,16
Zerbitzuen kudeaketa		4		13.114.507,63
Bereziak	2		0,00	
	16	14	9.660.994,09	20.280.638,43

Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, departamentu honek zenbateko handiko kontratuak tramitatu ditu oro har, aurreko ekitaldiko zenbatekoa bi halakoa gainditzearaino. Haietako hiruk 500.000 euroko atalasea gainditzen dute, eta beste bost 1.000.000 eurotik gora daude, honako hauek:

- ❑ Harrera zentroyen kudeaketa Usurbil, Lezo, Aia, Errenteria eta Irunen → 9.995.114,44 euro.
- ❑ Aldakoenea Egoitza Zentroa egokitzeko proiektuko lanak → 3.057.979,07 euro.
- ❑ Gizarte babesgabetasuneko egoeran dauden adingabeak egoitzetan hartzeko laguntza teknikoa → 1.607.005,14 euro.



- Astigarraga, Beasain, Errenteria, Getaria, Lezo, Orio eta Urnietan adineko mendeko pertsonen eguneko zentroak erabiltzeko eta kudeatzeko emakida → 1.399,375,34 euro.
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako eta emakume horien mende dauden pertsonentzako egoitza harrera zentroak erabiltzeko eta kudeatzeko emakida → 1.061.802,37 euro.


### Kultura, Gazteria eta Kirola

Departamentu honek 29 kontratu onartu zituen iaz, honela banatuta:

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa	
	2011	2012	2011	2012
Obrak	2		229.936,00	
Hornidurak	2	3	242.839,38	172.239,99
Zerbitzuak	16	17	2.144.177,92	1.181.952,96
Zerbitzuen kudeaketa		2		734.065,50
Bereziak	2	1	163.788,60	137.000,00
Pribatuak	8	6	409.800,00	295.380,00
	<b>30</b>	<b>29</b>	<b>3.190.541,90</b>	<b>2.520.638,45</b>


Aurkeztutako datuen arabera, departamentu honek tramitatu dituen kontratuen erdia zerbitzu kontratuak dira, eta kontratu modalitate horretan baimendutako gastu bolumena zenbateko osoaren %47 inguru da.

2011 kopurua



- Obrak
- Hornidurak
- Zerbitzuak
- Zerbitzuen kudeaketa
- Bereziak
- Pribatuak

2012 kopurua





Baimendutako gastuari begiratuta, guztietan handiena Igartubeiti Baserri Museoa eta Zumalakarregi Museoa kudeatzeko zerbitzu publikoaren kontratazioari dagokio: 453.629,58 euro.


Departamentuaren beste kontratazio multzo nagusia kontratu pribatuak dira. Guztira, sei espediente tramitatu dira modalitate horretan, eta denen artean 300.000 euro inguru egiten dute. Bolumen ekonomiko txikiko kontratuak dira denak, eta Gipuzkoako zenbait klub enb publikitate babesarekin lotuta daude.

## Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa

Departamentu honek 3 kontratazio espediente onartu ditu 2012an, ondorengo taulan jasotakoaren arabera:

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa	
	2011	2012	2011	2012
Obrak	2		324.757,78	
Hornidurak	2	1	149.520,97	71.390,00
Zerbitzuak	6	2	477.126,00	285.400,00
Esparru akordioa	1		42.000,00	
	<b>11</b>	<b>3</b>	<b>993.404,75</b>	<b>356.790,00</b>

Baimendutako gastuaren zenbatekoari begiraturaz gero, guztien artean bidaien kudeaketa zerbitzuaren kontratazioa dugu zenbatekorik handienekoa: 250.000 euro. Beste bi kontratuak ez dira 100.000 eurora iristen.






### Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa

Departamentu honek 23 espediente onartu ditu 2012. urtean zehar, eta bi milioi euro t´erditik gorako aurrekontua lizitatu du, bi halakoa baino gehiago 2011. urtean baimendutako zenbatekoarekin alderatuta. Zerbitzuen kontratua da gehien erabili dena: 18 espediente. Orobat, kontratu kategoria honetan baimendu den zenbatekoa Departamentuak baimendutako gastuaren zenbateko osoaren %70 baino handiagoa da.


Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa	
	2011	2012	2011	2012
Obrak	1		71.800,00	
Hornidurak	3	3	259.323,70	552.148,88
Zerbitzuak	12	18	553.870,12	1.791.087,00
Pribatuak	1	2	106.645,00	179.609,93
	<b>17</b>	<b>23</b>	<b>991.638,82</b>	<b>2.522.845,81</b>

Departamentuan gastu bolumen gehien tramitatzea ekarri duen kontratua Gipuzkoako Lurralde Historikoan hildako animaliak eraldatu eta deuseztatzeko zerbitzuarena da → 291.870,00 euro. Beste sei kontratuk ere 200.000 euroko atalasea gainditu dute.

2011 kopurua



2012 kopurua







### Ingurumena eta Lurralde Antolaketa


Departamentu hau dugu, Ogasun eta Finantza Departamentuarekin batera, 2012an gastu bolumen baimendua 2011koaren aldean gehien murriztu duen departamentua.

2012ko ekitaldian, 19 kontratazio espediente onartu ditu, ondorengo taulan jasotakoaren arabera:

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa	
	2011	2012	2011	2012
Obrak	5	1	3.919.527,37	86.008,32
Hornidurak	1	1	120.000,00	92.268,31
Zerbitzuak	19	16	4.287.444,28	1.061.553,98
Pribatuak	1	1	2.160.000,00	59.900,00
	<b>26</b>	<b>19</b>	<b>10.486.971,65</b>	<b>1.299.730,61</b>


Onartu dituen 19 espedienteetatik 16 zerbitzu kontratuen kapituluan biltzen dira, eta baimendutako gastu bolumen gehiena ere hor jasotzen da (gastu osoaren %81 inguru). Gastu bolumenik handiena tramitatu duen espedientea Gipuzkoako ibaien kalitatea 2012-2013 urteetan aztertzeko kontratazioari dagokio → 132.840 euro.

2011 kopurua



- Obrak
- Hornidurak
- Zerbitzuak
- Pribatuak

2012 kopurua






## Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak

Departamentu honek 18 kontratu onartu zituen aurreko ekitaldian, honela banatuta:


Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa	
	2011	2012	2011	2012
Obrak	18	8	49.566.846,84	81.871.015,60
Hornidurak		1		25.960,00
Zerbitzuak	17	9	3.004.947,97	15.925.559,75
Zerbitzuen kudeaketa	1		78.832.307,20	
	<b>36</b>	<b>18</b>	<b>131.404.102,01</b>	<b>97.822.535,35</b>

Kontratuak kategorien arabera aztertzen baditugu, zenbatekoan obra kontratuak nagusitzen dira (zenbateko osoaren %80tik gora). Zerbitzu kontratuekin batera, 2012an lizitatutako zenbateko ia osoa pilatzen dute.

2011 kopurua



2012 kopurua



Gastu baimenduari espedienteak banaka hartuta erreparatzen badiogu, ondoko bi espedienteak nabarmendu behar ditugu, obrakoak biak.

- GI-632 errepidearen saihebidia –Antzuolako lotune erditik Bergararainoko zatia– Urretxu-Legazpiko lotunetik Bergararaino (AP-1 autobideko konexioraino) egiteko proiektuaren 2. separata berrikusteko dokumentuko obrak → 77.021.160,80 euro.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko lehentasunezko sareetako errepideetan artapen eta ustiapen lanak egitea → 11.606.369,36 euro.



Zerbitzu kontratuetan, espedienteak zenbateko txikiagokoak dira alderdi ekonomikotik begiratuta. Haien artean nabarmentzekoa da GI-632 errepidearen saihezbidea Urretxu/Legazpiko lotunetik Bergararaino (AP-1 autobideko konexioraino) egiteko proiektuaren 2. separataren obra zuzendaritzan laguntzeko zerbitzuen kontratazioa → 2.201.607,10 euro.


### Kudeaketa zentralizatua

Gastu tipologia honetan, kudeaketa eta kontratazioa Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentuak egiten ditu, otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuak araututako Zerbitzu Orokorretako Kontratazio eta Homologazio Mahaiaren bitartez.

11 kontratu tramitatu dira Zerbitzu Orokorretako Mahaiaren bitartez, 1.071.428,63 € guztira.

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa	
	2011	2012	2011	2012
Obrak		1		213.189,72
Hornidurak	14	8	2.456.764,90	788.238,91
Zerbitzuak		2		70.000
Pribatuak	1		22.000,00	
	<b>15</b>	<b>11</b>	<b>2.478.764,90</b>	<b>1.071.428,63</b>

Zerbitzu Orokorretako Mahaiaren bitartez gehien tramitatzen den kontratu mota hornidurena da: kudeaketa zentralizatukotzat aitortutako kontratu guztietatik 8. Lizitazio zenbatekoaren ikuspuntutik ere hornidura kontratuak ageri dira lehen tokian, kudeaketa zentralizatu bidez lizitatutako zenbatekoaren %73,57 hartzen baitute. Atzetik, tramitatutako obretako kontratu bakarra dago, %19,90rekin eta bi zerbitzu kontratuak % 6,53a hartzen duena.





Zenbatekoaren arabera, honako kontratuak nabarmentzen dira:

- Gizarte politikako zentro gerontologikorako ohe eta gehigarriak hornitzea → 292.820 euro.
- Eibarko zentro gerontologikorako ACS berogailu sistema birmoldatze lanak → 213.189,72 euro.

## **Foru Kontratazioen Zentrala**

Gastu tipologia honetan, espediente bakoitzeko lizitazio kopuruaren barruan bai Foru Aldundiaren gastu aurrikuspenak bai espedientera erantsi diren entitateena ere sartzen da, norbanako bereizketarik egin gabe.

Foru Kontratazioen Zentralak burututako espedienteen kudeaketa eta kontratazioa akordio markoaren bitartez egiten da, Zentrala arautzen duen arautegiarekin bat (otsailak 22ko 3/2011 Foru Dekretua, 6.1 artikulua), eta akordioari atxikitako erakunde publiko bakoitzari dagokio akordioan oinarritutako bere kontratuak esleitu eta formalizatzea, kontratazio gaitako legeriak xedatzen duen bezala.

5 izan dira denera Foru Kontratazioen Zentralak izapidatutako kontratuak, 3.854.459,90 € kopuru osoaz.

Kontratuak	Kontratu kop.		Zenbatekoa	
	2011	2012	2011	2012
Obrak				
Hornidurak	1	3	1.930,604,84	2.278.524,24
Zerbitzuak	1	1		115.240,40
Pribatuak		1		1.460.695,26
	<b>2</b>	<b>5</b>	<b>1.930.604,84</b>	<b>3.854.459,90</b>

Foru Kontratazioen Zentralak gehien tramitatu duen kontratu mota hornidurena izan da, hirukin. Eta lizitazio kopuru aldetik antzeman daiteke ere hornidura kontratuak lehen tokia betetzen dutela, aipatu %59,11rekin

### **4.1.2. ESLEITZEKO PROZEDURAREN ETA ERAREN ARABERA**

Administrazio kontratuen prozedura eta esleipen moduei dagokienez, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen testu bateginak honako eskema ezarri zuen:



ESLEITZEKO PROZEDURA	ESLEITZEKO ERA
IREKIA	ENKANTEA LEHIAKETA
MURRIZTUA	ENKANTEA LEHIAKETA
NEGOZIATUA: <input type="checkbox"/> publizitatearekin <input type="checkbox"/> publizitaterik gabe	

Eskema hori bera errepikatzen da bai Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legean eta bai, geroago, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzekoan, nahiz eta horietan ñabardura bereizgarri batzuk ageri diren. Horrela, beste figura bat agertzen da, lehia-elkarrizketarena, oraindik ezein departamentuk erabili ez duena. Lehia-elkarrizketan, kontratazio organoak elkarrizketa bat antolatzen du hautatutako izangaiekin, horiek hala eskatu ondoren, haien premiak bete ditzaketen irtenbidea edo irtenbideak garatzeko, eta irtenbide horiek oinarria izango dira hautatutako izangaiek eskaintza bat aurkez dezaten.

Kontratuak esleitzeko erari dagokionez, araudi berriaren arabera, bereizi daitezke balorazio irizpide bakarra prezioa duten kontratuak (memoria honetan enkanteekin parekatu ditugunak) eta hainbat esleipen irizpide duten kontratuak (lehiaketekin parekatu ditugunak). Hori guztia egiten da kontuan hartuta sailkapen hori ez dagoela berariaz jasota ez SPKLaren inongo xedapenetan ez testu bateginean.

Ondoko taulan Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012an onartu dituen kontratuei buruzko datuak ikus daitezke, esleipen prozeduraren arabera banatuta<sup>2</sup>:

ESLEITZEKO PROZEDURA	KONTRATU KOPURUA	ZENBATEKOA	KONT. KOP./ %	ZENB. OSOA/%
Irekia	51	121.660.259,51	%36,69	%92,38
Negoziatua, publizitatua	1	42.952,00	%0,72	%0,03
Negoziatua, ez-publizitatua	87	9.991.235,67	%62,59	%7,59
<b>GUZTIRA</b>	<b>139</b>	<b>131.694.447,18</b>		

Hasteko, esan behar da prozedura murriztua ez dela erabili Gipuzkoako Foru Aldundiko ezein espedientetan, aurreko ekitaldietan bezalaxe.

<sup>2</sup> Ikus laburpen taulak Memoriaren II. eta III. eranskinetan. Bertan 2012an onartutako kontratuak ageri dira, esleitzeko prozeduraren eta eraren arabera.



Aurreko taulan jasotako datuei jarraituz, Foru Aldundiko departamentuek hiru prozedura erabili dituzte kontratuak esleitzeko. Alde batetik, prozedura irekia dugu, eta, haren bidez, 51 kontratu lizitatu dira, alegia, kopuru osoaren %36,69 eta baimendutako gastu osoaren %92,38.

Bestalde, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua dela medio 87 kontratu lizitatu dira, kopurua osoaren %62,59. Hala ere, kasu honetan bere kuantifikazio ekonomikoa askoz txikiagoa da, lizitatutako zenbateko osoaren %7,59 baino ez. Gainerako kontratuak (%0,72) zenbateko osoaren %0,03 dira, eta prozedura negoziatua erabilia eta publizitatea eginda esleitu dira.

Zifra horiek erakusten dute publizitaterik gabeko prozedura negoziatuek pisu handiagoa dutela lizitazio kopuruan. Segur aski, horren arrazoia neurri batean da prozedura hau erabiltzeko ezarrita dauden behe mugak gehitu egin direla.

Departamentuen arabera aztertuta, emaitza hau ageri da:

	Kontratu kopurua			Zenbatekoa (%)		
	Irekia	Negoziatua, publizitatua	Negoziatua, ez-publizitatua	Irekia	Negoziatua, publizitatua	Negoziatua, ez-publizitatua
Diputatu Nagusia	1	0	14	13,75	0,00	86,25
Ogasuna eta Finantzak	0	0	2	0,00	0,00	100,00
Gizarte Politika	13	0	1	99,12	0,00	0,88
Kultura, Gazteria eta Kirola	10	0	19	65,37	0,00	34,63
Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa	1	0	2	70,07	0,00	29,93
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa	6	1	16	50,71	1,70	47,59
Ingurumena eta Lurralde Antolaketa	7	0	12	48,83	0,00	51,15
Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak	10	0	8	99,13	0,00	0,87
Kudeaketa zentralizatua	3	0	13	10,39	0,00	89,61
<b>GUZTIRA</b>	<b>51</b>	<b>1</b>	<b>87</b>			

Datu horien arabera, zazpi departamentu dira publizitaterik gabeko prozedura negoziatua gehiagotan erabili dutenak kontratuak esleitzeko garaian. Era horretan, azken urteotako joerari eusten zaio, eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez tramitatutako kontratuak gehitu egin dira berriro.



Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzeko arrazoiei dagokienez, legeak aurreikusitako kasuetatik departamentuek honako hauek argudiatu dituzte:

- Arrazoi tekniko edo artistikoak, edo eskusibotasun eskubideak babesteko arrazoiak, prestazioen exekuzioa enpresari bakar baten esku uztea dakartenak.
- Obra osagarriak.
- Prozedura ireki bat jarraitzea eta eskaintzarik ez jasotzea.
- Kontratazio-Zentralak egindako kontratuetatik eratorritako prozedura negoziatuak izatea.
- Lizitazio prezioak legeak ezarritako gehieneko mugetatik beherakoak izatea.

Jarraian, azalduko dugu zer arrazoi eman dituzten maizago publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili duten departamentuek prozedura hori justifikatzeko:

Diputatu Nagusiaren Kabineteak justifikatu du bere kontratuetoako batzuetan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili duela lizitazio aurrekontuak legeak ezarritako goi mugak baino txikiagoak direlako. Beste batzuetan arrazoi tekniko eta artistikoak argudiatu ditu, eta bi kasutan publizitate babeseko kontratuak direla dio.

Gizarte Politikako Departamentuaren kasuan, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bakarra justifikatzeko adierazi du haren lizitazio aurrekontua legeak ezarritako goi mugen azpian dagoela.

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak ere adierazi du publizitaterik gabeko prozedura negoziatuen zati bat erabili duela kontratuen lizitazio aurrekontuak legeak jarritako goi mugak baino txikiagoak direlako. Gainera, bi kontratutan ere erabili du modalitate hori: esleitu gabe utzitako kontratu batean eta zerbitzu osagarrien beste batean. Publizitate babeseko kontratuak ere horrela tramitatutakoen artean daude.

Bere aldetik, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentuak kontratuen zenbatekoagatik justifikatu ditu publizitaterik gabeko prozedura negoziatuak.

Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak ere adierazi du kasu gehienetan publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili duela kontratuen lizitazio aurrekontuak legeak jarritako goi mugak baino txikiagoak direlako. Horrez gain, lehiaketa hutsik geratu zen kontratu batean eta publizitate babeseko beste batean ere erabili du modalitate hori. Azkenik, zenbait kontratutan arrazoi tekniko eta artistikoak justifikatu dira lanen exekuzioa enpresari bakar baten esku uzteko.

Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak kontratuen zenbatekoa argudiatu du publizitaterik gabeko prozedura negoziatuak arrazoitzeko. Beste kontratu batzuetan arrazoi tekniko eta artistikoak eman ditu lanen exekuzioa enpresari bakar baten esku uzteko.

Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak kontratuen zenbatekoagatik justifikatu du prozedura hau, eta horietako bietan, tramitazioa presazkoa izateagatik.



Ogasun eta Finantza Departamentuak kontratuen zenbatekoa argudiatu du publizitaterik gabeko bi prozedura negoziatuak justifikatzeko.

Azkenik, Kudeaketa Zentralizatuak eta Kontratazio-Zentralak kontratuen zenbatekoarengatik justifikatu ditu publizitaterik gabeko prozedura negoziatu gehienak. Gainerakoak Kontratazio-Zentralak egindako lehiaketetatik eratorri dira.

Esleitzeko erari dagokionez, lizitatutako kontratazioen %38,13 lehiaketa bidez esleitu da, gastu bolumenaren %92,45. Enkantearen figura ez da behin ere erabili, aurreko ekitaldian bezala.

Sailkapen horrekin lotuta –eta aurreko ekitaldiko memorian egin genuen bezala–, adierazi behar dugu Sektore Publikoko Kontratuen Legea indarrean jarri denetik lehiaketak eta enkanteak desagertu direla kontratuak esleitzeko modu gisa. Horien ordez, irizpide neurgarri bakarreko kontratuak eta irizpide bat baino gehiagoko kontratuak erabiltzen dira orain kontratuak esleitzeko. Gure kasuan, sailkapena mantendu dugu bereizi nahi izan dugulako zer kasutan izan den prezioa kontratua esleitzeko irizpide bakarra (enkanteak) eta noiz erabili den esleipenetan irizpide bat baino gehiago (lehiaketak).

ESLEITZEKO ERA	KONTRATU KOPURUA	ZENBATEKOA	KONTRAT U KOP./%	ZENBATEKO OSOA/%
Lehiaketa	53	121.751.560,55	%38,13	%92,45
Enkantea	0	0	%0	%0
Negoziatuak	86	9.942.886,63	%61,87	%7,55
<b>GUZTIRA</b>	<b>139</b>	<b>131.694.447,18</b>		

#### 4.1.3. ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIOAREN ARABERA

Kontratazio espedienteak arruntak, presazkoak zein larrialdikoak izan daitezke.<sup>3</sup>

Ondoko taulan ikus daitekeenez, espediente gehienak tramitazio arruntekoak izan dira (%98,56), aurrekontu lizitatuaren %99,71.

TRAMITEA	KONTRATU KOPURUA	ZENBATEKOA	KONTRATU KOP./%	ZENBATEKO OSOA/%
Arrunta	137	131.313.890,59	%98,56	%99,71
Presazkoa	0	0,00		
Larrialdikoa	2	380.556,59	%1,44	%0,29
<b>GUZTIRA</b>	<b>139</b>	<b>131.694.447,18</b>		

<sup>3</sup> Ikus laburpen taulak Memoriaren IV. eranskinean. Bertan 2012an onartutako kontratuak ageri dira, espedientearen tramitazioaren arabera.





Aurkeztutako datuen arabera, 2012an bi espediente tramitatu dira larrialdiko prozeduraz, eta presazko prozedura ez da behin ere erabili. Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuaren espedienteak dira denak, hauek hain zuzen:

- GI-2637 errepidearen 6,725 eta 6,785 kilometro puntuen artean galtzadaren deformazioagatik egonkortze neurriak hartzea: 140.580,50 euro.
- GI-2131 errepidearen 1,950 kilometro puntuan izandako luiziaren ondorioz egonkortze lanak egitea: 239.976,09 euro.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duenak, ezarritakoaren arabera, tramitazio hau erabiliko da Administrazioak berehala jardun behar duenean hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako.

#### 4.1.4. ESLEITU GABE UTZITAKO LIZITAZIOAK

2012. urtean onartutako kontratuen kapitulu orokorreko atal honetan, hainbat arrazoiengatik azkenik gauzatu ez diren lizitazioak izango ditugu hizpide.

Horrela, erregistratutako datuak aztertuta, ikusgai jartzen da sei espediente geratu direla esleitu gabe. Ondorengo taulan espediente horiek identifikatuko dira, haien lizitazio zenbatekoa adieraziko da, eta, azkenik, laburki azalduko da zer arrazoi eman dituzten departamentuek haiek ez esleitzeko:

1.- 7 eta 13 urte bitarteko umeentzako udalekuetan animazio pedagogikoko zerbitzuak. Orioko aterpetxea <i>Ez da eskaintzarik jaso</i>	27.785,47€
2.- GLHn pinu-beldarrari aurre egiteko tratamendu fitosanitarioa airez zabaltzeko zerbitzuak. 2012ko kanpaina <i>Bi eskaintzak baztertu dira eskatutako baldintzak ez betetzeagatik</i>	83.490,00€
3.- Gipuzkoako errepideen foru sareko 1. barrutiko bidezainen lan-taldearen behin-behineko egoitza izateko higiezin bat errentan hartzea <i>Lizitatzailerik batek atzera bota zuen bere eskaintza eta beste biek ez zituzten bete eskatutako baldintzak</i>	59.900,00€
4.- GFAko Gizarte Politikako Departamentuaren laguntza produktuen programa garatu eta gautzatzea <i>Ez da eskaintzarik jaso</i>	696.693,17€
<b>Guztira</b>	<b>868.868,64 €</b>



Ikus daitekeenez, esleitu gabe geratu diren lizitazioen amaierako zenbatekoa [868.868.64 €] 2011koa baino askoz txikiagoa da [79.249.269,20 euro]. 2012ko zenbateko horren zatirik gehiena kontratu bakar batek hartzen du (GFAko Gizarte Politikako Departamentuaren laguntza produktuen programa garatu eta exekutatzea → 696.693,17€).

### 4.2. 2012KO EKITALDIAN ESLEITUTAKO KONTRATUAK

Kontratazioari buruzko Memoria honen hasieran adierazi dugunez, 2012. urtean esleitu diren kontratuen barruan ekitaldi horretan egindako esleipenak sartu dira, alde batera utzita kontratua lehenago onartu den edo ez. Aitzitik, 2012an onartu bai baina ekitaldi horren amaieran esleitu ez diren kontratuak kanpoan utzi dira.

Irizpide horien arabera, 2012. urtean 139 kontratu onartu dira, eta 137 esleitu. 137 kontratu horietatik, 128 kontratu 2012an onartutakoak dira eta 9 2011n.

Txosten honen hasierako oharretan adierazitakoa gogoratuz, 2012. urtean egindako esleipenen datuak banakatuta ematen direnez, esleipenak lote esleituaren kopuruarenak izango dira, hau da, esleipen kopurua handiagoa izango da esleitutako kontratuena baino.

Zehazki, 2012. urtean esleitutako 137 kontratuetan 140 lote ageri dira. Lote kontzeptua ez da ageri bakarrik kontratuaren xedea aurrez adierazitako lotetan banatuta dagoenean, esleipendun bat baino gehiago izan dezaketen kontratu guztietan ere ageri da.

Hortaz, 2012. urtean 140 lote esleitu dira, 95.594.053,92 euro guztira. 2012ko ekitaldian esleitutako kontratuen zenbatekoei erreparatzen badiegu, ondoko hiru hauek nabarmendu behar ditugu beren zenbatekoagatik:

- ❑ GI-632 errepidearen saihezbidea –Antzuolako lotune erditik Bergararainoko zatia– Urretxu-Legazpiko lotunetik Bergararaino (AP-1 autobideko konexioraino) egiteko proiektuaren 2. separata berrikusteko dokumentuko obrak → 48.446.310,14 euro.
- ❑ Urola-kostako eta Deba-kostako lehentasunezko eta oinarritzko sareetako errepideetan eta bizikleta bideetan artapen eta ustiapen lanak egitea → 8.913.691,68 euro.
- ❑ Adingabeen harrera zentroen kudeaketa Iturriotz-Azpin (Aia), Mendixkan (Errenteria) eta Azpilikueta (Irun) → 5.742.493,9 euro.



#### 4.2.1. ESLEIPENETAN IZANDAKO KONTRATAZIO BEHERAPENEN AZTERKETA

2012. urtean batekoz beste %18,11ko beherapena izan da Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako kontratuen esleipenetan, eta horrek 37.376.540,28 euro aurrezteka ekarri du. Beherapenen batez besteko portzentajea honela banatzen da departamentuka:

DEPARTAMENTUA	BEHERAPEN %	ZENBATEKOA
Diputatu Nagusia	%3,12	80.163,00 €
Ogasuna eta Finantzak	%3,55	19.542,42 €
Gizarte Politika	%4,61	733.273,98 €
Kultura, Gazteria eta Kirola	%6,77	178.345,46 €
Foru Administrazioa eta Funtzio Publikoa	%1,42	5.074,00 €
Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa	%2,45	59.656,50 €
Ingurumena eta Lurralde Antolaketa	%24,06	1.391.732,38 €
Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak	%34,27	33.604.260,62 €
Kudeaketa zentralizatua	%27,96	1.304.491,92 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>%28,11</b>	<b>37.376.540,28 €</b>

Aurreko taulan ikus daitekeenez, beherapen portzentajeak Foru Administrazioko eta Funtzio Publikoko Departamentuan izandako %1,42tik Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuan izandako %34,27raino doaz.

Departamentuetako kontratuen beherapen portzentajeak dakarren aurrezpenari dagokionez, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua nagusitzen da, 33.604.260,62 euro murriztu edo aurreztu baititu bere lizitazioetan.

KONTRATU MOTA	BEHERAPEN %	ZENBATEKOA
Obrak	%36,54	31.067.089,13 €
Hornidurak	%22,46	861.536,60 €
Zerbitzuak	%16,13	4.480.531,22 €
Zerbitzuen kudeaketa	%4,08	538.301,71 €
Bereziak	%4,00	5.480,00 €
Pribatuak	%14,14	423.601,62 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>%28,11</b>	<b>37.376.540,28 €</b>

Portzentualki, obra kontratuak, hornidurakoak, zerbitzukoak eta pribatuak dira, hurrenkera horretan, beherapen portzentajeen batez besteko handiagoa dutenak: %36,54, %22,46, %16,13 eta %14,14 hurrenez hurren.




Kontratu mota bakoitzean aurreztutako zenbatekoari erreparatuta, ikusten dugu obra eta zerbitzu kontratuak direla aurrezpen handienekoak. Izan ere, kontratu horietan izandako 35.547.620,35 euroko beherapena Aldundiak 2012ko ekitaldian egindako kontratu guztien beherapenen %95 inguru da.

Bestetik, zenbatekoan beherapenik handiena izan duen kontratua honako obra kontratua izan da: “GI-632 errepidearen saihesbidea –Antzuolako lotune erditik Bergararainoko zatia– Urretxu-Legazpiko lotunetik Bergararaino (AP-1 autobideko konexioraino) egiteko proiektuaren 2. separata berrikusteko dokumentua”. Kontratu hori 48.446.310,14 eurotan esleitu zen, bere lizitazio prezioa 77.021.160,80 izan zenean (28.574.850,66 euroko beherapena).

### 4.2.2. LIZITATZAILEEN AZTERKETA

Atal honetan, aurrenik aztertu nahi da zenbat lizitatzailerik aurkeztu diren 2012ko ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu desberdinek egindako kontratueta. Ondorengo grafikoan kontratuen banaketa bat egin da, bertara jo duten lizitatzailerik kopuruaren arabera. Komeni da esatea publizitaterik gabeko prozedura negoziatuetan bakar-bakarrik kontratuaren azken esleipenduna konputatu dela lizitatzailerik. Aurkeztu diren gainerakoei buruz ez da ezerin daturik jaso.

Lizitatzailerik kopurua



2012an zehar, eta aurreko paragrafoan adierazitako muga kontuan hartuta, guztira 254 lizitatzailerik aurkeztu dira Gipuzkoako Foru Aldundiak deitutako kontratazio prozeduretara.<sup>4</sup>

<sup>4</sup> Ikus laburpen taulak Memoriaren VII. eranskinean. Bertan 2012ko ekitaldiko esleipenak ageri dira, departamentuen, kontratu motaren eta lizitatzailerik kopuruaren arabera.



Kontratisten %80,31 kontratazio prozesu bakarrera aurkeztu da 2012ko ekitaldian; %13,39 bi aldiz aurkeztu da, eta %6,29 hiru eta bostaldi bitartean. Ondorengo taulan jasotzen da zer lizitatzailer aurkeztu diren hiru aldiz edo gehiagotan Foru Aldundiak 2012an deitutako kontratazio prozeduretara.

LIZITATZAILEA	LOTE KOP.	ESL. KOP.	ZENBATEKOA
CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A.	5	0	0,00
UTE: URBYCOLAN, S.L.+ GRAMA, S.L.	4	0	0,00
CAMPEZO CONSTRUCCION S.A.U	4	0	0,00
CLECE, S.A.	4	1	5.742.493,90
CONSTRUCCIONES ZUBIEDER, S.L.	4	2	1.136.177,86
ALTUNA Y URIA, S.A.	3	1	1.528.992,78
UTE: IC-DC (CONSTRUCCION INGENIERIA Y GES. OBRAS)	3	0	0,00
